

SAREAN

©ANAMENABAR

#IrauteaIraultzea

Plaza publikoan diharduten hainbat emakumeek 'Irautea iraultzea denean' artikulua aurkeztu dute Berria egunkarian, iritzi guneetan parte hartzeari buruzko zenbait ideiarekin. Tertulietan oraindik dinamika matxistak ardatz direla nabarmendu dute, eta gutxietsita sentitu direla maiz: "Zure ahotsa errazago zapaltzea, moztea. Ostean datorren gizonak zure iritzia gutxiestea. Gizonen maiztasuna handiago izatea. Gizonak finkoak izatea, zu aldakorra...". Horren aurrean, irauteko "babes feminista" ezinbestekoa dutela defendatu dute. "Irauteko baldintzak jarri behar ditugu, beste biderik ez da geratzen. babes feministaz jarraituko dugu iruten eta irauten. Iruten, irauten eta iraultzen". Besteak beste, Zuriñe Rodriguezek, Estitxu Garaik, Naiara Pinedok, Pilar Kaltzadak, Maite Ubiriak, Eva Silvanek eta Ainhoa Etxaidek bat egin dute oharrarekin. ■



ZURIÑE RODRIGUEZ
@Zuriro

Tertulietan gabiltzan emakumeak elkartu gara. Urteak daramatzagu analisi politikoa egiten eta juxtu hori da egin nahi duguna, baina askotan jasanezina da. Matxismo gehiegi jasaten dugu.



ESTITXU GARAI
@EstitxuGarai

Iritzi-foretan parte hartzen dugun emakumeok esateko asko dugulako eta plaza publikoan irauteko babes feminista ezinbestekoa delako. Irautea iraultzea denean.



KIZKITZA GIL DE SAN VICENTE
@KizkitzaGildeSV

Adin, jatorri eta ideologia ezberdineko emakumeak sinatzaileen artean. Pentsa dezagun zein transbertsala eta egiturazkoa den patriarkatua. Mila esker bizipen partekatuari hitza emateagatik.



NAGORE ITURRIOZ
@NagoreIturrioz

Ezinbestean irakurri beharrekoa. Gero gure buruari galdetuko diogu zergatik ez dauden emakume gehiago hainbat eremutan, jasangaitza delako!!!



ANE LABAKA
@anepirata

Gizonak hor daude, emakumeak bertatik igarotzen dira.

IRUDITAN




Zer da bizitza, bueltaka ibiltzea ez bada?

Urtea abiatu eta gutxira hasten dira ospakizunak Araban. Eta, horietan guztien artean, Oionen dira goiztiarrenetakoak: urtarrilaren 21etik 23ra bitartean San Bizente eta San Anastasioren omenezko jaiak dituzte bertan. Egutegian ez ezik, ordutegian ere dira goiztiarrak: noiz eta igande batean 04:15ean hasten dira batzuk, hain berezkoak dituzten *aurora* kantak lau haizetara zabaltzeko. Herriko berezitasunen artean, baina *Katxiren zilipurdia* da herrian gehien maite dutena. Herriko banderaren eritmoan mugitzen da bufoiez jantzitako pertsonaia, herriari errespetua aitortu eta, finean, bizitzeko filosofia propio bat adieraziz. **Argazkia: ALEA.** ■



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzio@alea.eus



Parral
taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteazkenean zehar - asteburuetan razioak
asteartero aktibazio kulturalak

PARRALTAZENA@GMAIL.COM SAN FRANCISKO XABIER KANTOIA 4 TLF 945275433 GASTEIZ-ARABAI